

2017ko apirilaren 5ean ,UDALBATZAK egindako bilkura arruntaren AKTA. 2

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19,30tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate andreak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga
ZINEGOTZIAK : M^a Jesus Arruabarrena
Asier Iburguren
Arkaitz Iruretagoiena
Sergio Cubero
Igor Iturain
Hodeiza Sallen
Eñaut Guruzeaga
Aitor Arregi
Kontxi Lazkano, eta
Jon Ander Azpiroz

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.- Aktaren onarpena

2016ko apirilaren 5ean eginiko Udalbatzarraren Akta ontzat emanda aho batez.

2.- Plan Berezia :Kanpina 01-013 patzelan : 3. Behin-behineko onarpena.

“Plan Berezia :Kanpina 01-013 patzelan” dokumentua tramitatzen ari da udala, Zudugarai gainean bere jabetzako lur-sail batean kanpin bat sortzeko.

Apirilaren 3an, Udalbatzar honek behin-behibeko onarpena eman zion dokumentuari eta ondoren C.O.T.P.V ra bidali ondoren, erakunde honek, maiatzaren 15ean aldeko txostena eman zuen.

Diputazioko Mugikortasun eta Bide azpiegituretako departamentuak eskatutako zuzenketak egin eta gero, ekainaren 4ean, aldeko txostena eman du.

Foru Aldundiko Ingurumeneko departamentuak eginiko Ingurumen Memorian jasotzen ditu Plan Bereziak jaso beharreko zehaztapenak. Memoria horrek ondorioztatzen du Planak eta bere "I.S.A" –K berregokituak izan beharko direla.

Txosten honetan oinarrituta Lurralde Antolaketarako departamentuak, kautela neurri gisa, behin betiko onarpena etenda uztea erabaki zuen.

Otsailaren 3an , sustatzaileak EKOS enpresaren " I.S.A" dokumentu berria aurkeztu du.

Idazkari-Kontuhartzaileak, espedienteak izandako gora-beheren berri eman du.

Onarpen proposamena mahai gainean jarri eta Guruzeaga zinegotziak , udal arkitektoak ISArekiko bere eritzia eman duela eta horren berri jakin nahi duela azaldu du. Alkateak argitu du Ingurumen Memoria Foru Aldundiaren erabakia izanik ISA berriaren aurrean Foru Aldundia berak emango duela bere eritzia.

Alkatearen proposamena botatu eta 4 abstentziorekin eta aldeko 7 boturekin, hau da, beharrezko gehiengoarekin hartu da ondoko

AKORDIOA

1.- "Plan Berezia :Kanpina 01-013 patzelan " eta bere "I.S.A"- ri behin-behineko 3. onarpena ematea.

2.- Foru Aldundiari bidaltzea espedientea, behin betiko onarpena eman diezaion.

3.- Eskari-galderak

E. Guruzeagak erabakiak hartu aurretik dokumentuak eskura izatearen inguruan sortu du eztabaida. A. Arregik, berriz, bileretarako deialdiarekin batera dokumentuak bidaltzearen aukeraz galdetu du.

Idazkari-Kontuhartzaileak, azaldu du, Plenoko deialdia egiterako, espediente guztiak prest egon behar dutela Idazkaritzan eta bulego horretan daudela ikusgai.

E. Guruceagak, azkenik, eskatu du deialdiak iragarki-taulan egitea eta eguneratzea pleno-aktak web orrian.

Bilera, 19,55tan bukatu da, eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, Idazkariak hau ematen du, Aian 2017ko apirilaren 5ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEAK